

**BERGARAKO UDALA**  
**ADMINISTRARIEN LAN-POLTSA**  
**BIGARREN ARIKETA**

Oposizioaldiko bigarren ariketa:

2. Bigarren ariketa: Azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa izangai guztientzat eta baztertzaila (40 puntu).

Aurreko lehenengo ariketa gainditu duten izangaiei azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala egingo zaie, hautagaien egokitze-maila baloratzeko bete behar den lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko.

Ariketa honi gehienez 40 puntu emango zaizkio eta egingo diren proba bien puntuazioaren erdia gainditu beharko da eta gutxienez 25 puntu atera beharko dira ariketa gainditzeko, proba bakoitzaren puntuazioa epaimahaiak jakitera emango duelarik aurrez.

Epaimahaiak aurreko azterketen inguruan egon diren erreklamazioak aztertu, erabakiak hartu eta zuzenketa berriak egiteak eragindako lanek eraginda erabaki du azterketa froga atzeratzea eta honako hauek erabaki ditu:

- 1.- Noiz izango da: **Otsailaren 22an goizeko 10:00etan.**
- 2.- Non: UNEDen egoitzan (San Martin plaza).
- 3.- Ariketaren inguruko informazio osagarria argitaratuko da otsailaren 17a eta 18a bitartean Bergarako udalaren WEB orrian
- 4.- Halaber behin betiko emaitzen aurka helegitea aurkeztu dutenek parte hartu ahal izango dute modu kautelarrean, udalak argitara emandako behin betiko emaitzen iragarkian jasotakoari jarraituz.

Bergaran, 2022eko urtarrilaren 20ean

Epaimahaiko idazkaria

